



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
udala@arantza.eus
www.arantza.eus

OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2023.09.19

Ordua: 18:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- JARDUNEKO ALKATEA: Dabid Iturria Almandoz jn., EH Bildu.
- Markel Jorajuria Elizondo jn., EH Bildu.
- Eneko Sarrias Zoco jn., EH Bildu.
- Imanol Lukanbio Larretxea jn., EH Bildu.
- Joseba Pikabea Iribarren jn., EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Beñat Mitxelena Danboriena jn., EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio and., EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 5. poligonoko 907. eta 794. lurzatiaren arteko Karrika Nagusia bide publikoko zatiaren ikerketa espedientea iraungitzea eta artxibatzea.
3. Hirigintzako araudi orokorreko 21. artikulua aldaketa xehaketa. Behin betiko onespena.
4. Eraikuntzari buruzko ordenantzaren 54. artikulua aldaketa. Hasierako onespena.
5. 2023. urtean Bortzirietako igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdiaren onespena.
6. Alkate Ebazpenak.
7. Galderak eta eskaerak.
8. Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean administrazio publikoen parte-hartzea dinamizatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuari atxikitze protokoloa onestea

1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2023/06/27ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI da.

2. 5. POLIGONOKO 907. ETA 794. LURZATIEN ARTEKO KARRIKA NAGUSIA BIDE PUBLIKOKO ZATIAREN IKERKETA ESPEDIENTEA IRAUNGITZEA ETA ARTXIBATZEA.

Idazkariak azaldu du 2021eko apirilaren 7ko Arantzako Udalaren osoko bilkura arruntean 5. poligonoko 907. eta 794. lurzatiaren arteko Karrika Nagusia bide publikoko 40 m²-ko zatiaren ikerketa espedientea hasi zela. Horrela bada, 2021eko apirilaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean aipaturiko ikerketa espedientearen hasiera iragarkia argitaratu zen.

Interesatuak, alegazioak aurkezteko epean egokitzat jo zituzten alegazioak aurkeztu zituzten. Aldi berean, Iruñeko Lehen Auzialdiko 2 zenbakiko Epaitegiak, azaroaren 21eko 305/2021 Sententzia bidez ondorioztatu zuen aipaturiko bide publikoaren 40 m²-ko zatia 5. poligonoko 794. lurzatiakoa zela eta 5. poligonoko 908. lurzatiak oinezkoentzako bide-zorra eta ibilgailuentzako sarbidea zuela.

Gauzak horrela, 2023ko uztailaren 19an Arantzako Udaleko abokatuak, Marcos Erro Martinezek, txostena egin zuen aipaturiko ikerketa espedientea iraungitzea eta artxibatzea bidezkoa zela ondorioztatuz. Era berean, txostenean adierazi zuen egoera zuzentze aldera katastroko aldaketa egin beharko zela.

Horrela bada, idazkariak adierazi du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 eta 95.3 artikuluetan xedatutakoa ikusirik, prozedura iraungi eta artxibatu egin behar dela. Era berean, Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Nafarroako Katastroari buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lurralde Aberastasunaren Erregistroko oinarrizko datuak aldatzeko prozedura ofizioz hastea bidezkoa dela aipatu du.

Osoko bilkurara bertaraturako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Prozedura iraungitzat jotzea eta jarduketa guztiak artxibatzea.

2.- Hasiera ematea Lurralde Aberastasunaren Erregistroan Arantzako 5. poligonoko 907. eta 794. lurzatiaren artean dagoen Karrika Nagusiko bide publikoaren 40 m² inguruko zati baten oinarrizko datuak aldatzeko espedienteari, aipaturiko zatia 5. poligonoko 794. lurzatiakoa izatera pasatuz eta 5. poligonoko 908. lurzatiak oinezkoentzako bide-zorra eta ibilgailuentzako sarbidea duela adieraziz.

3.- Erabaki hau, dagokion dokumentazioarekin batera, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroa bidaltzea, aurreko puntuan adierazitako oinarrizko datuak alda ditzan.

4.- Erabaki hau espedienteko interesdunei jakinaraztea, udal abokatuaren txostenarekin batera, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

3. HIRIGINTZAKO ARAUDI OROKORREKO 21. ARTIKULUAREN ALDAKETA XEHAKATUA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Idazkariak adierazi du Hirigintzako Araudi Orokorreko 21. artikularen aldaketa xehakatu hasiera batez onetsi zela 2023ko apirilaren 27ko osoko bilkura arruntean, turismo-ostatuko establezimendu berriak sortzea debekatzeari edo hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian dagoeneko daudenak handitzeari buruzkoa.

Horrela bada, aipaturiko aldaketaren hasierako onespeneren iragarkia 2023ko maiatzaren 5ean Nafarroan editatzen diren egunkarietan argitaratu zen (Diario de Noticias eta Diario de Navarra), baita 2023ko maiatzaren 18ko 104. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere. Jendaurreko epean ez ziren alegaziorik aurkeztu.

Hori horrela izanik, idazkariak azaldu du Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72. artikuluan xedaturikoari jarrai, behin betiko onetsi daitekeela aipaturiko aldaketa xehakatu.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Hirigintzako Araudi Orokorreko 21. artikularen aldaketa xehakatu behin betiko onestea.
- 2.- Behin betiko onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79. artikularen arabera.
- 3.- Espedientea Nafarroako Gobernuko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen departamentuari helaraztea, hamar eguneko epean gehienez ere, haren gaineko kontrola egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraiki.

4. ERAIKUNTZARI BURUZKO ORDENANTZAREN 54. ARTIKULUAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak Arantzako eraikuntza orokorrari buruzko ordenantzako 54. artikularen aldaketa egiteko udal arkitektoak 2023ko irailaren 6an prestatutako txostena azaldu du, hirigune historikoan autokontsumorako eguzki plaka fotovoltaikoak paratzea baimentzeari buruzkoa. Era berean, aldaketa gauzatu ahal izateko irizpide juridikoen eta eman beharreko pausuen inguruko 2023ko irailaren 12ko txostena azaldu du.

Horrela bada, adierazi du aipaturiko ordenantzaren aldaketa egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legeko 325. artikuluan xedaturikoa jarraitu beharra dela

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- Eraikuntza orokorrari buruzko ordenantzako 54. artikulua aldaketari hasierako onespena ematea.
- 2.- Hasierako onespeneren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea 30 egunez bizilagun eta interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazio, keza edo oharra aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio, keza edo oharri aurkeztu ezean, behin betikoa egitea testua eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. 2023. URTEAN BORTZIRIETAKO IGERILEKUETAKO BONOAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN ONESPENA.

Idazkariak 2023. urtean Bortziritako igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdiaren oinarriak azaldu ditu.

Era berean, dirulaguntza deialdia egiteko Dirulaguntza Orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3. artikuluan xedaturikoa jarraiki egin dela azaldu du. Horrela bada, 17.3.b) artikuluan xedaturikoaren arabera, BDNS bidetik deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela adierazi du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

- 1.- 2023. urtean Bortziritako igerilekuetako bonoak ordaintzeko dirulaguntza deialdia onestea.
- 2.- Deialdiaren oinarriak BDNS bidetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.
- 3.- Deialdiaren nondik norakoak Arantzako Udalak hala deritzon hedabideetan azaltzea, bizilagun orok horren berri izan dezan.

6. ALKATEAREN EBAZPENAK.

79/2023tik 121/2023ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Halaber, hurrengo osoko bilkura uztailaren bigarren astetik aitzin izanen dela jakinda eta honako akordio hau hartzeko dagoen premia ikusirik, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 81.2. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako puntu hau osoko bilkura

honetan eztabaidatu daitekeela dio idazkariak. Osoko bilkurak, ADOSTU DU "Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean administrazio publikoen parte-hartzea dinamizatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuari atxikitze protokoloa onestea" osoko bilkura honetan lantzea.

8. BERRESKURATZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN PARTE-HARTZEA DINAMIZATZEKO ETA LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUARI ATXIKITZEKO PROTOKOLOA ONESTEA.

Idazkariak azaldu du Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea Europako Funtsekin lagundutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren dirulaguntzara aurkeztuko dela, mankomunitateak egindako hainbat inbertsioetarako dirulaguntzak lortzeko (kamioi berrien erosketak, kontenedore berriak, etab.).

Halaber, TRAGSATECek administrazio publikoen partaidetza dinamizatzeko eta laguntza teknikoko zerbitzua gauzatuko du BEEP dirulaguntzan. Horrela bada Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateri aipaturiko zerbitzua emateko beharrezkoa da mankomunitateko kide diren udal guztiak TRAGSATECen Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean administrazio publikoen parte-hartzea dinamizatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuari atxikitzea.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean administrazio publikoen parte-hartzea dinamizatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuari atxikitze protokoloa onestea.

Bertze aztergairik izan gabe, 18:50ak direnean, jarduneko alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

JARDUNEKO ALKATEA,

Dabid Iturria Almandoz



**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Nagore Madariaga Iriarte

